

16. Hilabeteko Iruzkina
2009ko Urria



**ESKUALDE SORTZAILEAK ETA BERRITZAILEAK EUROPAN:
GIPUZKOAREN KASUA**

Aurkezpena

Europar Batasunak ekonomia- eta gizarte-kohesioari buruz landutako seigarren txostenak sormena eta berrikuntza ditu ardatz, funtsezkoak direlako gaur egungo krisialdi ekonomikotik azkar eta indartsu ateratzeko.

Txosten horren arabera, oso garrantzitsua da sormenak eta berrikuntzak eskualde-mailarekin duten erlazioa. Horrela, txostenak ematen dituen definizioei helduta, sormena ideia berri eta erabilgarri bat sortzean datza eta berrikuntza, berriz, ideia berri eta erabilgarri hori martxan jaritzean. Eskualde-mailarekin duen lotura aipatzean, ideia batek eskualde jakin batean berria eta erabilgarria izan behar duela aditzera eman nahi da.

ELGEk dioenez, berrikuntzaren konplexutasun gero eta handiagoa ikusita (eredu irekiagoak, prozesu berritzaileak eta egokitzapen-lanak), ezinezkoa da berrikuntza eskualde guztietan sustatuko duen politika bakar bat erabakitzea. Tokiko ezagupenak baliatu behar dituzte eskualdeek berrikuntza-sistema propioak sortzeko eta ezagupenak eta teknologia modu eragin-korraoan erabiltzeko.

Ohar honek Europako Batzordeak xede dugun txostenari (2009ko ekainekoa) buruz landutako Komunikazioaren laburpena barne hartzen du eta, ondoren, Gipuzkoa eta herrialde aurreratu-
nen arteko konparazio-azterketa ikus daiteke (Egitura Funtsen lehiakortasunaren eta enplegua-
ren helburuekin lotuta); konparazioa egiteko aipatutako txostenean barne hartutako sormenaren
eta berrikuntzaren adierazleak erabili dira.



16. Hilabeteko Iruzkina 2009ko Urria



Sormena: toki-mailako garrantzia

Nola sortzen dira ideia berri eta erabilgarriak?

Ikerketa-lana lan bakartia dela uste bada ere, ideia gehienak pertsonen arteko elkarreraginaren ondorioz sortzen dira, batez ere ezberdinak diren eta talentua duten pertsonen arteko elkarreraginaren ondorioz.


Elkarreragin hori sustatzeko, trebetasun propioak garatu behar dituzte eskualdeek, bai eta talentuak erakarri eta dibertsitatearekiko tolerantzia erakutsi ere.

• Tokiko talentuak garatzea

Giza kapitala da ezagutzaren ekonomiaren oinarria, eta hezkuntzak eta prestakuntzak pertsonen talentua eta sormena garatzen laguntzen dute.

Testuinguru horretan, giza kapitalaren intentsitatea, lortutako hezkuntza-mailaren arabera zein bizitza osoan baitako ikaskuntzan egindako parte-hartzearen arabera neurtuta, sormenaren oinarri bihurtzen da eta eskualdeko ekonomia-gaitasuna hobetzeko oso lagungarria da.

Azken urteetan hobekuntza esanguratsua lortu du giza kapitalaren intentsitateak Europar Batasunean, eta prestakuntza gero eta hobeia duten pertsonak lan-merkatuan sartu ahala, aurrerapen hori bizkortu egingo dela aurreikusi daiteke. Eta emakumeek gero eta prestakuntza hobeia dute, halaber, gizonena baino hobeia askotan.



16. Hilabeteko Iruzkina 2009ko Urria




• Talentua eta bisitariak erakartzea

Eskualde batek bere talentu-kuota areagotu nahi badu, dohain bereziak dituzten pertsonak eskualdean bizitzera erakartzen edo eskualdea ezagutzera animatzen saia daiteke.

Pertsonen sormena eta pertsona desberdinen arteko elkarreragina sustatu nahi badira, funtsezkoa da kanpoko pertsona talentudunak erakartzea eta pertsona horien mugikortasuna lortzea, hala hezkuntza- zein ikerketa-esparruan nola enpresa-esparruan.

Zientzia eta negozioei buruzko hitzaldietan mundu osoko pertsona asko eta asko bildu ohi da eta negozio-bidaia hazkunde- eta enplegu-iturri garrantzitsu bat dira hiri eta eskualde askotan. Bestalde, nahiz eta aisialdiko bidaien xedea ez den ideiak trukatzeko, hirietako gizarte-bizitza aberasteko balio dezakete eta, era berean, sormena sustatzeko.



16. Hilabeteko Iruzkina 2009ko Urria




• Tolerantzia eta pertsona sortzaileak

Jatorri eta bizi-estilo ezberdinekiko tolerantziak talentuari eusten eta talentua erakartzen laguntzeaz gain, inguru ireki bat, sormena sustatzen duena eta dibertsitatea baloratzen duena, sortzen laguntzen du.

«Oinarrizko maila sortzailea» (Richard Florida) bereziki garrantzitsua da ekonomia batean, maila hori osatzen duten kideek ideia gehiago sortzen dituztelako eta enpresa berriak ezartzeko joera handiagoa dutelako; eta horrek guztiak ekonomiaren hazkuntza eta enplegua sortzeko aukerak laguntzen ditu. Aipatutako maila horretan hainbat lanbidetako kideak daude, ingeniariak, idazleak, arkitektoak, zientzialariak, irakasleak, artistak, eta abar; guztiak balioa duten produktuak, prozesuak edo zerbitzuak sortzeko lan egiten dute.

Maila sortzailea hiriburuak barne hartzen dituzten eskualdeetan edo hiri handietan pilatzen da batez ere, bai eta Europa iparraldeko eskualdeetan ere, eta atzerrian jaiotako unibertsitate-tituludun ugari bizi da bertan.

Eskualde horiek eta inguru metropolitarrak gero eta garrantzi handiagoa dute berrikuntza lortzeko eragile boteretsu gisa eta hiri askotan hasi dira jada sormena hobetzeko lanean. Xede horrekin, pertsona sortzaileak eta kualifikazio-maila altua dutenak erakartzen saiatzen dira eta zeregin berritzaileak garatzen lagunduko duen ingurune egoki bat eskaintzen zaie, ideia berriak aurrera eramateko bidea ahalbidetuz.



16. Hilabeteko Iruzkina 2009ko Urria



Berrikuntza: toki-mailako garrantzia

Idea berri erabilgarri bat testuinguru sozialean, kulturean edo ekonomikoan gauza daitekeen ideia bat da.

Gizarte-berrikuntzari esker, haurren arretarako ereduak hobe daitezke, etxean bertako osa-sun-arreta hobe daiteke eta garraio iraunkorra susta daiteke.

Kultur berrikuntzak, bestalde, forma artistiko berriak ekar ditzake.


Testuinguru ekonomikoari dagokionez, energia-kontsumoa murriztu daiteke eta prozesuak arrazionalizatu eta produktuen diseinua hobe daiteke, eta horrek guztiak lehiakortasuna indartzeko balio du.

• Enpresa berriak

Minienpresa berritzaileak dira tokiko berrikuntzarako giltza. Enpresek, tokiko enpresari batek sortutako minienpresa berritzaileek (start-up) zein kanpoko inbertsio baten ondorioz sortutakoek, ideia berriak obratzen dituzte sarritan.

Minienpresak sustatzeko beste modu bat enpresa-espirtua aktiboki sustatzea izan daiteke. Horretarako, enpresa-espirtua zuzenean eragingo duen heziketa behar da.

Horrekin batera, I+G esparruko gastua eta teknologiaren erabilera, berrikuntza ez-teknologikoa eta ETEek lortutako ezagupenen konbinazioa ditugu lurralde-mailako berrikuntza eta lehiakortasuna hobetzeko euskarriak.



16. Hilabeteko Iruzkina
2009ko Urria




Gipuzkoa Europako eskualde sortzaile eta berritzaileen testuinguruan

Sormenarekin eta berrikuntzarekin erlazionatutako adierazleek Gipuzkoan lortutako datuei erreparatuz, Europako eskualde garatuenen testuinguruan duen egoera ona azpimarratu behar da (lehiakortasunaren eta enpleguaren helburuan nahastutako Europako eskualdeak) .

Eskualde lehiakortasuna eta enplegurako helburua Europako biztanleko BPGaren batzbestekoa baino %75a baino gehiago duten eskualdeak osatzen dute.

Eskualde lehiakortasuna eta enplegua
FEDER eta FSE



De 2007 a 2013

- Regiones subvencionables en el marco del objetivo de «competitividad regional y empleo»
- Regiones subvencionables en el marco de la ayuda transitoria del objetivo de «competitividad regional y empleo» (proceso de inclusión gradual)

16. Hilabeteko Iruzkina 2009ko Urria



Erabilgarri ditugun hamar adierazleak hartu eta indize sintetiko bat landuz gero (portzentaje-ratioen batez bestekoa oinarrian hartuta), 122ko indizea lortzen du Gipuzkoak (100eko batez bestekoa lehiakortasunaren eta enpleguaren helburuan nahastutako Europako eskualdeetan). Azken urteetan nabarmenki aldatu dira zenbait adierazle, I+G esparruko gastuarena edo langabezia-tasarena, esate baterako; hala ere, adierazi berri dugun indizeak Gipuzkoak Europako eskualdeen testuinguruan duen kokapena oro har ondo islatzen duela esan daiteke.

Zer alderdi sendo ditu Gipuzkoak?

Biztanleen hezkuntza-maila altuagoa da (tokiko talentua), langabezia-tasa baxuagoa du (gizarte-kohesioa, erakargarritasuna) eta bertara iristen den bisitari kopurua, halaber, altuagoa da (dibertsitatea). Azken urteetan langabeziaren gorakada ekarri du lurralde guztietan bizi den krisialdiak. Haatik, murriztu egin da Gipuzkoak Europako eskualdeekiko duen diferentziala.

Eta, neurri txikiago batean bada ere, Gipuzkoarekin alderatu diren Europako eskualdeetako balioak gainditu dira urtean sortutako aberastasunaren indizearen kasuan, bai eta produktibitate, etengabeko ikaskuntza edo langabezia-tasaren indizeen kasuan ere.

Eta alderdi ahulak?

Giza elkarreraginaren ikuspegitik, pertsona atzerritar gutxiago bizi dira Gipuzkoan (elkarreragina), etxeetan IKTei ematen zaien erabilera baxuagoa da (adin aurreratuko taldeak) eta enpresek gutxiago gastatzen dute I+G esparruan (hala ere, azken urteetako batez bestekoari eutsi zaio).



16. Hilabeteko Iruzkina
2009ko Urria



- Tokiko eta eskualdeko sormenaren eta berrikuntzaren adierazleak

Adierazlea	Gipuzkoa	Eskualdeak L eta E	Unitatea eta urtea
3. mailako hezkuntza duen biztanleria	42	26	25-64 urtekoen %, 2007
Etengabeko ikaskuntza	13,2	11,5	25-64 urtekoen %, 2007
Beste herrialde batean jaiotako biztanleria	6,5	12,5	15-64 urtekoen %, 2007
Bisitariak	2,3	1,4	Per capita, 2006-7
Banda zabaleko Internet	46	57	familien %, 2008
Enpresen gastua I+G esparruan	1,17	1,36	BPGdren %, 2006
Enplegu-produktibitatea	129	113	EB-27=100, 2006
BPGd per capita	136	122	EB-27=100, 2006
Enplegu-tasa	70	69	15-64 urtekoen %, 2007
Langabezia-tasa	2,6	6,1	biztanleria aktiboaren %, 2007

Iturria: Europako Batzordea, Eustat eta INE. Bertan landua..

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/regional_policy/sources/docoffic/official/repor_en.htm



EUROPEAN COMMISSION
DG Regional Policy